

la perfumería

de Mercadona

2021EKO UDAZKENA

MAKILLATU
ZAITEZ
ZER DA
LEHENTASUN?
BEGIRADA
INDARTZEA

AURPEGI HORIEK!
*Ezagutu zure azalerako
produktu-lerro
egokiena*



UDAZKENA

mugimenduan

BOREALIA SHINE

BEREZKO DISTIRA





AURKIBIDEA

1, 2, 3... UDAZKENA MUGIMENDUAN

Udazkenean, askatasunari, energiari eta arintasunari begira jarriko gara, hasiera berri ugari dakartzan urtaro horri ongiatorria egiteko.

- 06 Bainatzeko ordua
- 08 Hidratatu eta elikatu azala
- 10 Ile liluragarria izateko

EDERTASUNA ETA ONGIZATEA

Aurpegia

- 15 Sensitive, azal sentikorretarako
- 16 Oreka: distirarik gabe!
- 18 Anti Ox, gaztetetasunaren elixirra
- 20 Oil Free, aknea duten azaletarako tratamendua

NOLA EGITEN DA?

22 Likopenoa, urre gorria

Zuzenean tomatetik ateratzen den aktibo eraginkor bat da, eta gure aurpegiaren osasuna nabarmen hobetzen du.

GIZONEZKOEN EDERTASUNA

24 *Men care* keinuak

HAURREN ZAINKETA

26 *Oh my baby!*

Haurtxoen azalak zainketa berezia behar du, oso sentikorra baita.

27 Jateko irrikan gaude...!



MANIKURAREN TARTEA

28 Manikura ikasten

Azazkalak nola zaindu eta nola limatu erakutsiko dizugu, eta beti elikatuak izatearen garrantzia azalduko dizugu.

MAKILLAJEAREN LURRALDEA

32 Makillatu zaitetz

Begi delineatu erakargarrietatik ke-koloretaraino; begiak dira zure estiloa erakusteko mihise aproposena, lehen, orain eta beti.

DENBORALDIKO OINARRIZKOAK

38 Apain-mahaiko adituak

Argitaratzailea: MERCADONA SA
Fuente del Jarro industrialdea.
Ciudad de Liria, 5. 46988 Paterna / Valentzia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimatzailea: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren produktu-aukera estandarri dagozkio. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei. Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea. © Aldizkariaren titularra MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debekatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.



1 2 3 UDAZKENA *mugimenduan*



Udazkenean, askatasunari, energiari eta arintasunari begira jarriko gara, hasiera berri ugari dakartzan urtaro horri ongiatorria egiteko. Ongi etorri azala eta ilea zaintzeari esanahia ematen dion garaiko inaugurazio-dantzara. Gel, xanpu eta krema hidratatzaileak lagun izango dituzu udazkena mugimenduan igarotzeko.



Bainatzeko ordua



Hidratatu eta
elikatuz azala



Ile liluragarria
izateko

BAINATZEKO ORDUA




Dutxa izaten da azal polit, leun eta distiratsuena lortzeko lehenengo urratsa. Iraganari erreparatu eta herriaren jakinduria berreskuratzea modan dago, eta gorputzeko azalaren zainketak indarra hartu du berriro, onura ugari baititu. Aprobetxatu dutxako uea, zure azalaren itxura berritzatzeko eta energiaz kargatzeko abiapuntua izango da eta.

Inguratu azala aroma magikoz

Oroitzapen Goxoak bainu-gelarekin eta Kokozko bainu-gelarekin errutina alde batera utzi eta zentzumenak aktibatuko dituzu. **Olozko bainu-gelarekin**, lehenengo unetik bertatik mimatuko duzu azala, eta ongizatea eta babesia emango dizkizu.

Zatoz esfoliazioaren klubera

Gorputzerako esfoliatzaileak lagungarriak dira zelula hilak kentzeko, zelulak birsortzeko eta kolageno-ekoizpena sustatzeko. Azalak leuntasuna eta malgutasuna berreskuratzen ditu, eta, gainera, ondorengo tratamenduak jasotzeko prest geratzen da, hala nola krema hidratatzaileak, serumak eta tonikoak.



Erabili **bainurako eskuila** toki zailtarako; esate baterako, bizkarralderako.

Mikrozirkulazioa aktibatzeko, eman partikula esfoliatzaile naturalekiko **Gel Esfoliatzailea** gorputz guztian.


Aukeratu produktu egokiak eta sortu ohitura hartzera animatuko zaituen erritual bat.

Putxan...

ESFOLIATZAILEA ERABILTZEKO GAKOAK

Erregulatu tenperatura

Urak ez dezala izan 35-37 gradu baino gehiago. Bukatu ur hotzarekin, nahi dituzun atalak tonifikatzeko.



35-37° ↓



Masajea

Hasi orkatiletatik mugimendu zirkularrak eginez, eta egin gora, pixkanaka, bereziki landuz hankak, ipurmasailak, aldaka, sabela eta besoak, lepora iritsi arte.

Ez ahaztu oinak!

Zaindu itzazu arretaz ezpurutasun eta azal hil guztia kentzeko.



HIDRATATU ETA ELIKATU AZALA

Udazkenean sartzen garenean, eguraldia eta errutinak aldatu egiten dira. Gure edertasun-ohiturak ere moldatu egin behar ditugu. Aprobetxatu gaueko dutxa edo bainua gorputza mimatzeko, eta oparitu zeure buruari masaje arin bat, zure beharretara ondoena egokitzen den krema erabiliz.



Hanka nekatuak arintzeko, eman masajea orkatiletatik izterretara, zure gogoko krema erabilia, eta manten itzazu goian!



• **Koko Mante-K**

Azala elikatzen lagunduko dizu, lehortasunari aurre eginez eta leuntasun gehigarria emanaz. Gurin-testura atsegina eta koko-aroma ditu, eta, horiei esker, udazkenerako hidratatzaile perfektua da, eguzki eta bero handiko hilabeteak igaro ostean azala sakon elikatu behar baitugu.



• **Cream Argan-olioarekin**

Gorputzerako argan-oliodun krema nutritiboa, azal lehor eta oso lehorretarako. Marokotik datorren landare bat da argana, eta, haren propietate ugariak esker –A bitamina, E bitamina, antioxidatzaileak...–, aproposa da gorputzeko azala zaintzeko eta elikatzeko.



• **Itsaso Hileko Mineral Mante-K**

Itsaso Hileko mineral esentzialen onurak eskaintzen ditu Israeldik datorren gorputz-gurin honek. Azal lehorretarako formulatu da. Azalaren hidratazioa orekatzen du, eta azalak ura atxikitzeko duen gaitasuna hobetzen du.

AZAL DISTIRATSUAGOA IZATEKO SNACKA

Elikadura funtsezkoa da azalaren elastikotasuna eta hidratazioa berreskuratzeko.

Distira egiteko prest? Sartu aperitibo hau zure dietan: endibia, tzatziki saltsarekin (jogurta, pepinoa, olio eta limoia) eta txia-haziekin.

- ✓ **ENDIBIA** Funtzio hepatoari laguntzen dio, eta hidratatuta mantentzen gaitu.
- ✓ **PEPINOA** Organismoa garbitu eta arazteko prozesua sustatzen du.
- ✓ **LIMOIA** Zitriko guztiak bezala, garbigarri ona eta tenkagarria da.
- ✓ **TXIA-HAZIAK** Apartekoak lehortasunari aurre egiteko.



ILE LILURAGARRIA IZATEKO

Argan-olioak toki bat merezi du udazkeneko zure produktu gogokoenen artean. Milaka urtean ezagutu dugun aktibo horrez gain, karite-gurina, keratina eta jojoba-olioa duten formulak ditugu, ilearen distira eta leuntasuna berreskuratzeko.



Argan-olioak erakutsi digunez, jatorri naturaleko osagaiek goitik beheara alda dezakete ilearen zaintza. Olio hori Marokon endemikoa den arbola baten fruituetatik ateratzen da.

HIDRATAZIO SAKONA

Argan-olioa E bitaminatan, antioxidatzailetan eta gantz-azidotan aberatsa da, eta hidratazioa eta leuntasuna ematen ditu, itxura koipetsua eman gabe eta bolumena kendu gabe. **Argan Oil xanpuak** leunki garbitzen du ile lehorra, eta itxura osasuntsua itzularazten dio zuntzak trinkotu gabe.

BURU-AZAL OSASUNTSUA

Argan-olioak, bere konposizioari esker, nutrizio- eta hidratazio-sentsazioa ematen dio buru-azalari, ile sendo eta suspertua lortzeko. Argan Oil xanpua erabili ostean, kendu ur epel ugarirekin; ez erabili ur oso beroa, ilea ez dadin lehortu.

ILE OSASUNTSU ETA DISTIRATSUA

Ilea ez harrotzen laguntzen du, punta irekien itxura hobetzen du, eta lagungarria da orrazteko.

Remedy Mask Argan Oil ilean garbitu gabe uzteko maskara bat da, ile lehorretarako aproposa. Ilea itxura osasuntsua berreskuratzen du, eta leun eta distiratsu geratzen da. Dosifikatu pultsazio bat edo zure ilearen lodieraren eta luzeraren arabera behar dituzunak, eta eman erdialdetik puntetara, sustraietan eman gabe.



Zergatik erabili behar duzu argan-olioa?

- ✓ Distira eta hidratazioa ematen ditu.
- ✓ Ilea harrotzea ekiditen du, eta elektrizitate estatikoa murrizten du, babes-geruza bat eratzen baitu ilearen inguruan.
- ✓ Ilea gehien behar dituen nutrienteak ematen ditu.

ARAZTU ZURE BURU-AZALA



Dermo Sensitive xanpuak leunki garbitzen du buru-azal sentikorrena, eta zikinkeriak eragindako ondoeza arintzen du. Almendra gozoaren estraktuz eta kotoi-olioz osatutako formula estraleunari esker, buru-azalaren konforta berreskuratzen laguntzen du, ilearen oreka naturala errespetatuz. Ilea leun eta, aldi berean, distiratsu uzten du.

Aurpegiko eta gorputzeko azala garbitzen dugun modu berean garbitu behar dugu buru-azala. Erabili **Exfoliating Balm Detox**, jatorri naturaleko partikula esfoliatzailedun produktua. Ilean eta buru-azalean metatutako koipea eta hondakinak garbitzeko aproposa da. *Detox complex* konplexuari esker eta pepino-estraktuari esker, freskotasun- eta ongizate-sentsazio atsegina izango duzu.

Nola erabili behar dut?

Zabaldu baltsamoa ile hezean, sustraietatik puntetara, utzi lanean minutu batzuetan eta kendu urarekin. Ondoren, garbitu ilea ohiko xanpuarekin. Errutina osatzeko, erabili **Detox xanpua**, ile koipetsuak edo finkatzeko produktuen ezpurutasunak eta ingurumenaren kutsadura pairatzen dituzten ileak garbitu eta purifikatzen baititu.





LISS FRIZZ CONTROL SERUM ARGITZAILEA

Kamelia-olioa eta E bitamina ditu, eta, horri esker, distira bizia ematen dio ileari. Aldi berean, ilea ez harrotzen laguntzen du, ilea trinkotzen ez duen testura jariakorra duelako.

Nola erabili

- ✓ Ilea heze baduzu, dosifikatu 2-4 pultsazio eskuan, eta banatu ilearen erdialdetik puntetara.
- ✓ Lehortu eta orraztu ohi bezala.
- ✓ Ilea lehor baduzu, jarri 1-2 pultsazio eskuan, eta banatu ile-adatsean azken ukitu gisa.



LISS FRIZZ CONTROL ERRITUALA

Ahaztu ilearen ukitu lehorraz erritual honen formulari esker, banbu- eta zeta-estraktuz, kamelia-olioz eta keratinaz egina baitago; ile bihurrienak ere menderatzen lagundu eta harrotzea saihesten du. Ilea leun eta liso uzten du 24 orduz. Teknologia termoaktiboa du, zeinak zure ile-adatsa babesten baitu 230 °C arteko tenperaturetatik.

Nola erabili

- ✓ Eman ilea garbitzen duzun bakoitzean, ile heze eta korapilo gabean.
- ✓ Erabili 2-6 pultsazio, ilearen luzeraren eta dentsitatearen arabera.
- ✓ Banatu ongi erdialdetik puntetara, masaje leun bat emanez ilean. Ez garbitu urarekin.
- ✓ Erabili lehorgailua edo plantxa, termoleuntzearen teknologia aktibatzeko. Ondoren, orraztu ohi bezala.

DIETA MEDITERRANEOA ADATS OSASUNTSUA IZATEKO

Arrautza nahasiak izokinarekin, brokoliarekin eta azenarioarekin



Ilea zaintzeko erritualaren osagarri, elikadura ere zaintzea komeni da, bitamina ugari –B5 eta B6, adibidez–, mineralak, kobrea, zinka, aminoazidoak eta antioxidatzaileak hartuz.

ARRAUTZA Keratinaren osagai den zistina du arrautzak.

IZOKINA B5 bitamina asko du; bitamina horrek ilea elikatzen du, eta hazten laguntzen dio.

BROKOLIA Glutaciona du, ilea osasuntsu mantentzeko gomendatzen den antioxidatzaile boteretsua.

AZENARIOA C bitamina du; bitamina horrek kolagenoa sortzen laguntzen du.

berezia **AURPEGLA**



Sensitive

azal sentikorretarako

Oreka

distirarik gabe!

Anti Ox

gaztetasunaren elixirra

Oil Free

aknea duten
azaletarako
tratamendua

Sensitive AZAL SENTIKORRETARAKO

Azal sentikorrek azal polit eta finak dira, baina kanpoko erasoen aurrean bizkorrago eta nabarmenago erreazionatzen dute. Poluzioak, keak, tenperatura-aldaketek eta estres-garaiek aurpegi delikatuaren errektibotasuna areagotzen dute. Ezaugarriak desberdinak izan daitezke kasuaren arabera, baina halako azalei antzematen zaizkien ezaugarri bereizgarriak hantura eta gorritasuna dira.

Nola tratatu?



3

Sensitive Crema Hidratatzaile Indartzaileak

K Ox bitamina du (perfumerik gabea). Ongizate-sentsazioa ematen du, azalaren osotasuna errespetatzen du eta, epe luzera, haren hesi naturala babesten du. Gorritasunak, kuperosia, begi-zuloak eta betazpiko poltsak dituzten azalen itxura hobetzen du. Eman goizez eta gauzez masaje leun batez.



1

Saiatu perfumeak saihesten, eta garbitu azala gorritasun, azkura eta lehortasunik eragiten ez duten gel neutroekin.

Sensitive Gel Garbigarriak

ez du ez xaboirik ez perfumerik. Haren pH-ak azalaren film hidrológicoa birsortzen laguntzen du, eta, hala, azalaren hidratazioa eta elastikotasun naturala mantentzen dira. Nahikoa duzu goizez eta gauzez erabiltzea azala heze duzularik, eta saiatu lehortzean toallarekin presiorik ez eragiten.

Azala garbi eta lehor duzunean, serumaren txanda da. Aurpegia zaintzeko errutinaren lehenengo urratsa da. Azalari gehigarri bat ematen dio, gehien behar duenean.

Sensitive Gorritzeen aurkako Serumak

lehortasuna eta tenkatasuna arintzen ditu, eta berehalako konforta ematen du. Niazinamidaren eta azafrai-lorearen konbinazioari esker, azala leunago eta bareago geratzen da, gorritasunak gutxiago ikusten dira eta azal asaldatuaren sintomak leuntzen.

2



4

Azkenik, azala gorriago sentitzen duzunean, Sensitive Gorritzeen aurkako Kremak berehalako freskotasuna emango dizu, eta azala lasai eta bare utziko dizu. Pigmentu berdeei esker, berehala bateratzen du tonua eta aurreoinarri gisa erabil daiteke makillatu aurretik.

Adituaren aholkua

Zure erritualean crema berri bat (edo beste edozein produktu) erabiliko duzun lehenengo aldia bada, probatu kantitate txiki bat besoaren barrualdean, aurpegiaren nahiko antzekoa baita sentikortasunari dagokionez.

OREKA DISTIRARIK GABE!

Azal koipetsukoa bazara, badakizu ez dela zaintzen erraza. Distirak, poro irekiak, puntu beltzak, aknea... Halako inperfekzioak oso ohikoak dira. Azal koipetsua zaintzeko, garrantzitsua da koiperik gabe hidratatzen duten produktu espezifikoak erabiltzea. Ezagutzeko prest?

Azal koipetsua ohikoagoa da nerabezaroan, baina emakume askok izaten dute helduaroan ere. Aurpegia ez zaintzeak, poluzioak, tabakismoak, estresak edo elikadura txarrak, besteak beste, azal koipetsua eragin dezakete.

NOLA IDENTIFIKATZEN DA?

Batez ere, T eremuan (kopeta, sudurra eta kokotsa) ageri ohi da gehiegizko koipea. Ondorioz, distirak, poro zabalduak, puntu beltzak eta pikorta txikiak agertzen dira. Hala ere, bada ohiko akats bat azal koipetsua dutenek egiten dutena: ez hidratatzea, kontu garrantzitsuenetariko bat baita.

Horretarako, *oil free* produktuak eta ez-komedogenikoak bilatu behar dira, eta, ahal dela, aktibo matetzaileraren bat dutenak.



Equilibrio Serum Seborregulatzailerak

–azido azelaikoaren eta alantoinaren eratorriak ditu eta aminoazidotan, niazinamidatan eta D pantenoletan aberatsa den konplexu botaniko bat du– azaleko inperfekzioak kentzen laguntzen du, poroa txikitzen du eta azal koipetsu eta/edo seborreikoaren itxura hobetzen du.

Equilibrio Cream Hidratatzaileak

gehiegizko koipea erregulatzeko laguntzen du. Haren formularen peptidoak –zimurren aurkako efektua dute– eta ektoina –poluzioaren aurkako efektua du– konbinatzen dira. Eman goizean eta /edo gauean aurpegiko eta lepoko azal garbian, masaje leun batez.

NOLA ERABILI BEHAR DUT?

Pipetaren laguntzarekin, eman tanta batzuk azalean eta egin masaje leun bat aurpegian, lepoan eta bularraldean, erabat xurgatu arte.





Facial Clean

PEELING ENTZIMATIKOA

Esfoliazio leun

eta eraginkorra lortzen da, itsas estraktuen eta landare-estraktuen ekinza entzimatiokoari esker. Fruten alfa hidroxiazidoaren (AHA) eragin birsortzailea ere lortzen da.

Poroak garbitzen ditu,
eta azala finago uzten.

**Pikorrik gabeko
kremaren testura**
du, lozio bilakatzen
baita urarekin
nahastean.

% 100 naturala

Badakizu Peeling
Entzimatihoa
erabiltzen?



ANTI OX, gaztetasunaren elixirra



Adinaren zantzuak lehenago edo beranduago –genetikaren kapritxoen arabera– agertzen dira azalean: zimurrak, tonu- eta elastikotasun-galera, orbanak... Prestatu papera eta arkatza! Denboraren joan-etorriaren zantzu horien aurka borrokatzeko produktu onenak zein diren esango dizugu.

BEGI- ETA BETAZAL- INGURURAKO DRAGON'S BLOOD



Begi-zuloek eta poltsek ematen duten nekatu-itxura arintzeko eta goiko betazala hainbeste ez erortzeko formulatu da krema hau. Gainera, azala erradikal askeetatik babesten laguntzen du, eta azal-zahartzearen zantzuak atzeratzen ditu.

Nola erabili behar dut?

Eman egunean bi aldiz kantitate txiki bat begien inguruan, azala garbi eta makillatu gabe duzula. Lehenengo, eman masaje txiki bat, eta bukatu hatz-mamiekin ukitu txiki batzuk eginez.



Zer da drago-odola?

Drago-odola *anti-aging* boteretsu bat da, Amazonasko *Croton lechleri* zuhaitzaren izerdi gorritik ateratzen dena. Oso preziatua da milaka urtez gerotzik, gaztetzen duen antioxidatzaile indartsua baita. Eta, gainera, zimurren aurkakoa da, kolageno-ekoizpena sustatzen du eta azalaren immunitatea hobetzen.

DRAGON'S BLOOD AURPEGIKO KREMA



Azala erradikal askeetatik babesteko pentsatuta dago krema hau, leuntasuna eta elastikotasuna itzultzen dizkio aurpegiari, eta itxura gazteagoa ematen.



Nola erabili behar dut?

Eman egunean bi aldiz aurpegian, lepoan eta bularraldean masaje leun batez, erabat xurgatu arte.

LIKOPENOZKO AURPEGI-OLIOA



Paregabea da azala birsortzeko eta leuntzeko, gorritasunak baretzeko, eguzkiak eta adinak eragindako orbanak leuntzeko eta zahartzearen zantzuen aurka egiteko. Esentzia-olioak –besteak beste, zedroa, sandaloa eta vetivera– eta kolagenoa ditu, azalaren hobekuntza eraginkorragoa izan dadin.



Nola erabili behar dut?

Eman tanta batzuk azalean (lehorra nahiz hezea) goizez eta gauez, masaje arin bat eginez erabat xurgatzen den arte.

% 20 C BITAMINADUN INDARTZAILEA



Eragin antioxidatzaile bizkor eta nabariko tratamendu intentsibo bat da. Orbanak leuntzen ditu, aurpegiari argitasuna itzultzen dio, adinaren zantzuak hobetzen ditu, tonua bateratzen du, eta hidratatu egiten du.

EZ ERABILI AZAL SENTIKORRETAN

Nola erabili behar dut?

Eman aurpegian, lepoan eta bularraldean, azala garbi eta lehor duzula, kremaren aurretik. Erabili gauean bakarrik, eta ez ahaztu eguzki-babesa ematea hurrengo goizean.

Oil Free

Poro zabalduak, puntu beltzak, distirak, itxura koipetsua... Horra hor azal koipetsuen eta/edo aknea izateko joera dutenen ezaugarri batzuk. Zenbait faktorek eragin dezakete aurpegian gehiegizko seboa izatea, baina soluzio bakar bat dago: tratamendu espezifiko bat egitea. **Kontuan hartu!**



Oinarrizko errutina

1 AURPEGIA GARBITZEKO MOUSSE PURIFIKATZAILEA

Zikinkeria, makillaje-hondarrak eta ezpurutasunak kentzen ditu. Azido salizilikoarekin eta aktibo seborregulatzailerekin –lasaigarriak eta matetzaileak– formulatuta dago, azala sakon garbitzen du, eta gehiegizko koipea kontrolatzen du.

2 TONIKO LEHORGARRIA

Azido salizilikoarekin eginda dago kosmetiko hau, koipe-ekoizpena murrizten laguntzen du, aurpegiko inperfekzioak ezabatzen ditu, eta azalari mate-itxura ematen dio.

3 KREMA JARIAKOR HIDRATATZAILEA

Azido azelaikoa, *Centella asiatica*, kreatina, alantoina eta itsas algak ditu formulatan. Azala hidratatzen eta konpontzen du, eta gehiegizko koipea eta distirak erregulatzen laguntzen du.

Zainketa gehigarria

4 BUZTIN BERDEZKO MASKARA

Aurpegiko gehiegizko koipea orekatzen du, eta poroen tamaina murrizten. Azala mate eta berriztatua uzten du. Aktibo-konbinazio bat du, zeina erabakigarria baita, zink-PCArekin eta buztin berdearekin batera, azala purifikatzeko. Eman astean behin edo birritan, azala garbitu ondoren, eta utzi 10 edo 15 minutuz.

5 INPERFEKZIOETARAKO GEL LEHORTZAILEA

Inperfekzio lokalizatueterako egokia da. Niazinamida, azido mandelikoa eta zink-PCA ditu produktu honek, eta zaldarrak agertzen diren unetik beretik murrizteko eta lehortzeko funtzioa du. Tratatu behar duzun inguruan eman eta minutu batzuk lehortzen utzi. Ez duzu besterik egin behar. Erabili egunean bizpahiru aldiz. Makillajearen gainean ere eman dezakezu.



Facial Clean

BUBBLE MASK

Maskara garbitzailea eta
esfoliatzaile eferbeszentea.
Perlitarekin formulatua dago.

Koipe-hondarrak, zikinkeria
eta ezpurutasunak kentzen
ditu azaletik.

Mikroburbuila oxigenatzaile
batzuk ditu, eta kilimak
eragiten dituzte bits-geruza
eratu ahala.

Azala garbitu eta haren
itxura hobetzen du, leunago,
homogeneoago eta
argitsuago uzten baitu.



Ikasi Bubble Mask aurpegiko
maskara esfoliatzailea erabiltzen



Likopenoa

URRE GORRIA ESATEN DIOTE

Zuzenean tomatetik ateratzen den aktibo eraginkor bat da, eta gure aurpegiaren osasuna nabarmen hobetzen du.



1. Jatorria eta bilketa

Extremadurako ingurune erabat natural eta poluziorik gabeko batean hazten dira formula honen jatorria diren tomateak, Vegas del Gudianako erregadio-sail bikainetan.

Gure produktu gogokoenetan tokitxo bat izatera iritsi da likopenoa, azala zaintzeko aukera natural eta eraginkorra baita. Antioxidatzailea da, eta zelulak erradikal askeetatik –zahartze goiztiarra eragiten dute– babesteko gaitasuna du; beraz, oso lagungarria da azalari tonu bateratua emateko.

Gaur egungo kosmetika herentziaren eta berrikuntzaren artean partekatutako esperientziaren emaitza da.





2. Prozesatzea

Tomatearen azaletik ateratzen da, matrizeko olio guztiak erauzten dituen garbiketa-prozesu baten bitartez. Hortik ateratzen den produktua, mizela, distilatu egiten da, eta, ondorioz, likopenoa –antioxidatzailetan aberatsa– erauzten da. Likopeno hori erabiltzen da, gero, kosmetikan.

3. Elaborazioa eta ontziratzea

Laborategian, likopenoa beste olio esentzial eta natural batzuekin nahasi, eta ontziratu egiten da, kolorea eta propietateak eguzki-argitik babesteko.




Emaitza? Azala zaindu eta denboraren zantzuetatik babestuko duen formulazio aparta.


4. Jasangarritasuna

Ekoizpen-ziklo horri esker, erabat aprobetxatzen da gure herrialdeko nekazaritzako lehengai esanguratsuenetariko bat. Ekonomia zirkularraren adibide ona da.

Azkenik, gure dendetara iristen da, osasunez eta ingurune naturalarekin bat eginez bizitzeko estilo bat sustatzeko produktu gisa, substantzia kimikorik eta produktu toxikorik gabea.



Likopenoak orbanak prebenitzen eta desagerrarazten laguntzen du, azal atopikoaren itxura hobetzen du eta erradikal askeek eragiten duten estres oxidatibotik babesten ditu zelulak.



CREAM PHYTOPROTEOGLYCANOS® SPF12 MEN CARE REGEN SKIN

Aurpegirako krema arina, bizkor xurgatzekoa. Zimurrak eta keinu-marrak leuntzen ditu. Hidratatu egiten du, aurpegiko elastikotasuna hobetzen du eta poluzioak azalean dituen eragin kaltegarriak prebenitzen ditu. Eguzki-iragazkiak ere baditu.

Printzipio aktiboak

- ✓ **Phytoproteoglycanos®** eta **silizio organikoa**; azala sendotzen dute eta zimurrak leuntzen dituzte.
- ✓ **C bitamina** egonkorra; zahartzea prebenitzen du.
- ✓ **Ektoina**, poluzioaren aurkakoa.
- ✓ **Azido hialuronikoa, jojoba-olioarekin eta moringa-gurinarekin** konbinatua; hidratazioa ematen diote azalari, eta konfort-sentsazioa areagotzen dute.



Nola erabili

Eman goizero aurpegi eta lepo garbian, masaje leun bat eginez, xurgatu arte.



GEL MURRIZTAILEA ABDOMEN MEN CARE

Ekintza intentsiboko formula bat du, eta, horri esker, biguntasuna arintzen eta gantz lokalizatua murrizten laguntzen du. Sendotu eta tonifikatu ere egiten du.

Printzipio aktiboak


- ✓ **Kafeina**; azaleko toxinak eliminatzen eta gantz lokalizatua galarazten laguntzen du.
- ✓ **Sarcoslim re-shape**; aktibo lipomurriztaile bat da, eta, gainera, azala sendotzen du.
- ✓ **Landare-estraktuz** osatutako koktel eraginkorra du; koipeak kanporatzea sustatzen du.

Nola erabili

Eman egunean behin edo birritan sabelaldean eta gerrian, masaje arin zirkularrak emanez.



HATZAK BABESTEKO UZTAIA



Aposituak bermatzen ditu. Hatzak urradura eta kolpeetatik babesten ditu.



NOLA ERABILI

Jarri uztaia hatzaren puntan, mugimendua duen eraztuna azpialdean geratzen dela.




1

Zabaldu eraztuna erabat hatzaren bukaeraraino.




2

Biratu bi aldiz, ixteko.



3

Bultzatu bigarren eraztunari hatzaren bukaeraraino.



4



Oh my baby!

Haurtxoen azalak zainketa berezia behar du, oso sentikorra baita. Hautatu haienezako onena, haien azala mimatuko duten gelak eta kremak. Azala babestua, hidratatua eta narritatu gabe izango dute. Haurrentzako apaingarriak dituen tresneria, lehenengo ahiak jaten laguntzeko.

KOSMETIKA Pediatrikoa

Gel-Xanpua

Garbiketa estraleunerako bereziki sortutako formula du. *Defense complex* du. Haurren azala ez lehortzen eta, hala, hesi-funtzioa indartzen laguntzen du. Leuntasuna eta distira naturala ematen dizkio ileari.



Gorputzerako Balsamoa

Haurtxoen azala hidratatu eta babesten duten aktiboak ditu. Berehalako konfort-sentsazioa ematen du.



Aurpegirako Balsamoa

Sakon elikatu eta hidratatzen ditu aurpegia eta lepoa. Landare-jatorriko omega 3rekin formulatua dago, eta azaleko tenkatasun-sentsazioa nabarmen hobetzen du. Kalendula-estraktuarekin aberastua dago, zeinak azkura arintzen eta kanpoko erasoekiko hesi bat eratzen baitu.

Jateko irrikan gaude...!

Erabili eta botatzeko adur-zapiak

Hondakin txikiak jasotzeko tokia du. Higienikoa da, eta jartzen erraza. Erosoa eta praktikoa etxean nahiz etxetik kanpo erabiltzeko.

Tanten kontrako edalontzia, ahoko bigunekoa

Xurgatzean aktibatzen den balbula bat du, tantarik eror ez dadin. Silikonazko ahoko bigun bat du, oso lagungarria biberotik edalontzira igarotzen ari diren haurrentzat.



Pure & ahietarako koilara

Kirten luzea du. Ontzi gehienetatik kanpora geratzen da, eskuak ez zikintzeko.

Haurrentzako platera

Oinarri irristagaitza, helduleku eroso eta silikonazko estaldura, berotutakoan erre ez dezan.



Biberoiak eta tetinak garbitzekoa

Eraginkortasunez kentzen ditu esne-, zuku- eta ahi-hondar guztiak biberoi, txupete eta jostailu garbigarrietatik. Ez du ez hondakinik ez usainik uzten.

NOLA ERABILTZEN DA? Jarri produktu pixka bat biberoiaren barruan eta garbitu kontuz biberoiak garbitzeko batekin. Kendu produktua ur epelarekin. Formula suabea duenez, erabat segurua da haurrentzat. Ez du perfumerik ez koloratzaileirik; dermatologikoki testatua dago.



Haurtxoentzako toallatxoak joera atopikoa duten azaletarako

Aloe verak, kamamilak, kalendulak, probiotikoek eta gainerako osagaiak haurtxoen azala baretzen dute, eta babestuta eta hidratatuta mantentzen.



MANIKURA IKASTEN

Azazkalak nola zaindu eta nola limatu irakatsiko dizugu, eta ondo elikatuak izatearen garrantzia azalduko dizugu. Orri hauetan hasten da etxeko manikuraren ikasgaia. Ikasteko prest?

AZAZKALETARAKO KIT *espresa*

KENDU

Azazkalen egoera, esmalte-mota eta are kolorea ere garrantzitsuak dira zerekin kenduko dugun erabakitzeke garaian.

- **Azeton purua;** egokiena esmalte iraunkorretarako, kolore ilunetarako eta glitterra duten koloreetarako. Kendu ondoren, garbitu eta hidratatu, lehor ez geratzeko.
- **% 0 Azetona;** esku eta azazkal sentikorretarako gomendatua. Agente hidratatzaileak ditu. Agente horiek elikatu egiten dute, eta kutikuletako lehor-sentsazioa murrizten dute.
- **Azetonaduna;** ohiko esmalteak kentzen ditu, eta agente hidratatzaileak ditu azala ez lehortzeko.
- **Instant 0 % Azetona,** bizkorra eta erabiltzen erraza. Azetonarik gabea da, eta txori-larrosarekin eta E bitaminarekin formulatua dago, azaleko lehortasuna saihesteko.



GARBITU, BULTZATU ETA KENDU

Laranjondo-ziria manikuraren/pedikuraren hasieran erabiltzen da, azazkalak eta kutikulak garbitzeko.

Ekintza hirukoitza:

1. Garbitu azazkalaren kanpoko aldea, punta fina duen muturrarekin.
2. Bultzatu kutikula mutur zehiarrarekin.
3. Eta kendu emeki azala eta esmalte-hondarrak; kasu honetan, mutur esfoliatzailea erabiltzen da, koloreduna.



Laranjondo-ziriak, esfoliatzailearekin

Garbitu eskuak edozein esmalte-kentzeko erabili ondoren. Garbitu eskuak edozein esmalte-kentzeko erabili ondoren. Baliteke esmaltea behar bezala ez itsastea produktua ez bada behar bezala garbitzen, agente hidratatzaileak baditu ere.

ZAINDU

Eskuak garbitzen ditugunean azazkalak lehortze hutsak azazkalen eta kutikulen narriadura geldiarazten du.



Kutikulak Kentzeko Gela

LIMATU

Azazkalak limatzea funtsezkoa da printzak saihesteko eta forma ongi definitzeko. Badakizu nola egin? Egiten dituzun mugimenduak garrantzitsuak dira, azazkalak ez apurtzeko eta ez ezkatatzeko. Alboetatik erdirantz limatzea gomendatzen da, etengabe baina mugimendu leunekin.



Azazkaletarako esmeril-limak



Azazkaletarako metalezko lima

Beira-zuntzeko lima



Japan Flower eskuetako krema

HIDRATATU

Mantendu kutikulak eta azazkalak ondo hidratatuta, ez lehortzeko, azaltxoak saihesteko eta erraz ez apurtzeko... Itxura onarekin, polit eta osasuntsu ikusiko dira.



Olio Bitaminikoa



BASOKO koloreak

Ezagutu **Force** bilduma, udazken-koloreko esmaltez osatua. Azazkalak indartzeaz gain, haien itxura hobetuko dute, distira handia eta estaldura bikaina emanaz. Guztiak nahiko dituzu!



991 zk. berdea



993 zk. teila-kolorea

MANIKURAREN TARTEA



990 zk. marroia



992 zk. urdina



994 zk. mostaza



995 zk. sator-kolorea




MAKILLATU ZAITEZ

Begi delineatu erakargarrietatik ke-koloretaraino; begiak dira zure estiloa erakusteko mihise aproposena, lehen, orain eta beti. Udazken honetan, begirada biziak, *eyeliner* maximalistak eta ur-marra nabarmenak ditugu, garai berri bati ongietorria egiteko.

SMOKEY EYES

Ke-efektu perfektua lortzea ez da erraza. Etxean estilo hori lortu nahi izan duenak badaki praktika behar dela begi-itzala eskuan duzula ez etsitzeko. Horregatik eskainiko dizkizugu aholku batzuk.

- Zabaldu **02 zk. Mate Begi-itzala** begi-txokoan hasi eta betazalaren bukaeraraino.
- Landu betazal mugikorretik kanpoaldera pigmentu ilunenak erabiliz (**09 zk. Satin, 10 zk. Satin** eta **07 zk. Long Lasting itzalak**), eta bereziki landu betileen lerroa.
- Bukatzeko, egin marra bat **02 zk. Begi-profilatzaile marroiarekin** eta eman **Rock & Volume Betile-maskara**.



• Makillaje hau lortzeko...

Erabili 02 zk. Mate, 09 zk. Satin, 10 zk. Satin eta 07 zk. Long Lasting begi-itzalak, Rock & Volume Betile-maskara, 02 zk. Begi-profilatzaile marroia eta 995 zk. Force Azazkal-esmaltea.




BEGIRADA POLITA IZATEKO AHOLKUAK

- ✓ Betazal koipetsuak badituzu, erabili borla, hauts zeharrargi pixka batekin, hasi aurretik betazala lehortzeko.
- ✓ Pigmentuak ur-marraren gainean gehiago iraun dezan, lehortu ur-marra, produktua eman aurretik.
- ✓ Alderantzikatu ordena, eta makillatu lehenengo begiak eta gero hasi zuzentzailearekin eta oinarriarekin.
- ✓ Hasiberrientzako tonu onenak? Neutroak, nudeak eta marroiak. Beti asmatuko duzu haiekin.



MAISU-UKITUA

Eman argi-puntu bat begi-txokoa,
goiko betileak hasten diren puntuan.
Zure begien berezko distira
indartuko duzu.



- **Modeloaren makillajea lortzeko** erabili 02 zk. Mate, 19 zk. Metal eta 05 zk. Long Lasting begi-itzalak, 03 zk. Begi-profilatzailea eta 4D Volume betile-maskara.

NATURALA ETA BALIO ANTZEKOA

Egoera guztietarako balioko digun begi-makillaje baterako gakoa itxura freskoa eta naturala izatea da.

- Eman **02 zk. Mate Begi-itzala** betazal guztian. Erabili **19 zk. Metal Begi-itzala** betazal mugikorrean, eta mugatu betazal mugikorraren ertza **05 zk. Long Lasting Itzalarekin**.
- Eman kolore-ukitu bat betileen behealdean **03 zk. Begi-profilatzailearekin**.
- Azken ukitu gisa, lortu *flash*-efektua **4D Volume Betile-maskarekin**.



• **Makillaje honetarako hauek beharko dituzu: 08 zk.**


Satin Begi-itzala, Eyeliner Gela eta Maxi Volume Betile-maskara, 995 zk. Force Azazkal-esmaltea eta ilerako osagarria (hainbat modelo eta diseinu daude aukeran).

PIN UP BERRIZTATUA

Zinemaren eta publizitatearen munduko *look* ezagunena indarrez itzuli da.

- Gehitu kolore-ukitu arinak betazaletan **08 zk. Satin Itzalarekin.**
- Erabili **Eyliner Gela** begi-txokotik kanpoalderantz zabaltzen doan marra nabarmen bat egiteko. Indartu zure betileak **Maxi Volume Maskararekin.**

Utzi ezpainak natural, begiak nabarmendu daitezzen. Begirada guztiak erakarriko dituzu.



• **Modeloaren makillajea lortzeko** erabili 02 zk. eta 05 zk. Long Lasting itzalak, 4D Volume Betile-maskara eta 03 zk. Begi-profilatzailea.

BIZIAGOTU BEGIRADA

Beldur izan ohi zara zure ohiko paleta kromatikoan koloreak gehitzeko? Ausartu nahi baduzu baina zure burua ez ezagutzeko beldur bazara...

- Aukeratu elkarrekin bat datozen koloreak **(02 zk. eta 05 zk. Long Lasting itzalak)** eta zure ohiko itzalen antzekoak. Lausotu itzazu betazalean.
- Gehitu udazken-koloreko berde bat; **03 zk. Begi-profilatzailea**, adibidez. Bizitasuna eta sakontasuna emango dio betileen beheko marrari.
- Edertu zure begiak **4D Volume Betile-maskarekin**.

GOIZETIK GAUERA

Egunean zehar zurekin batera aldatuz joango den makillajea behar duzu? Orduak igaro ahala geruzak gehitzeko aukera emango dizun oinarri batekin hastea da gakoa.

- Eguna hasteko, erabili itzal suabe bat (esate baterako, **07 zk. Satin**), argitasuna eta naturaltasuna emateko.
- Arratsaldean, dramatismo pixka bat sortzeko, eman ke-itxurako ukitu bat betazal mugikorrean, **16 zk. Metal Itzalarekin**.
- Bereziki azpimarratu kanpoaldea, eta lausotu barrualdea, jatorrizko pigmentua ez estaltzeko.
- Azkenik, gauean, atera zorrotik **Eyliner Gela** eta marraztu marra lodi bat goiko eta beheko betileetan.
- *Et voilà!* **Maxi Volume Maskararekin** betileak birpasatu, eta erregina bazina bezala sentituko zara.



Look hau lortzeko erabili 07. zk. →
Satin eta 16 zk. Metal itzalak,
Eyliner Gela eta Maxi Volume
Betile-maskara. Azazkaletan,
992. zk. Force esmaltea.






APAIN-MAHAIKO *adituak*

Iraila omen da urtarrilean bete gabe geratu zitzazkigun asmoak gauzatzeko bigarren aukera. *Beauty* errutinarekin konstantea izatea da asmo ezagun eta zailenatariko bat. Errazagoa izan dadin, ez dago apain-mahaia produktu hauekin betetzea baino ezer hoberik.



1 Ezpain-ingururako Regen Skin Krema. Ahalmen antioxidatzaile eta birsortzaile handiko hidratatzaile bat da, likopenoarekin formulatua. **2 Extra Time For Her.** Emakumeentzako lurrina, fruta-aromakoa. **3 Extra Time For Him.** Gizonezkoentzako lurrina, ukitu zitriko eta basatiduna. **4 Eskuetakoa krema oliba-olioduna.** Zure eskuak hidratatu, elikatu eta leuntzen ditu. **5 Te-zuhaitzaren olio.** Propietate ugariko esentzia-olio purua. **6 Oinetarako krema % 10 urea puruarekin.** Sakon hidratatzen ditu oin lehorrenak ere. **7 Aurpegirako krema C bitaminaduna FPS 50+.** Egunero emateko moduko oil free gel-krema antioxidatzailea, indargarria eta argitzailea. **8 Rosa Blanca Body Spraya.** Perfektua gorputz guztia lurrintzeko.



TURBANTEA

seca pelo • cabelo

Mikrozuntza

deliplus

for her

MY SOUL
SUPREME

FOR HIM
EAU DE PARFUM

MY SOUL
SUPREME

FOR HER
EAU DE PARFUM

for him

MY SOUL
SUPREME

MY SOUL
SUPREME

MY SOUL
SUPREME